



VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari

Eusko Ikaskuntzako gerentea
Mirakontxa, 48
20007 Donostia
josemari@sk.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 131-136]

Euskara Internet sarean

(The Basque language in the Internet)

Ezaguna da oso Internet sarea, baina, zer esan daiteke horri buruz euskal internauten ikuspegitik? Euskararentzat indar iturri bat izan daitekeen hau oraindik gutxi ustiatuta dago gure artean, eta gizarte euskaldunak prestatu egin behar du bere burua sare telematikokoan aritzeko eta bertan euskarazko produktu onak ekoizteko. Izan ere, ezinbesteko lanabesa bilakatu zaigu Internet, eta euskaldunak osotasunean hezi behar du euskal parametroetan.

Za famosa red Internet es objeto de análisis desde la perspectiva de los internautas vascos. A destacar el hecho de que el euskara todavía no ha aprovechado lo suficiente esta red telemática, ante lo cual la sociedad vasca debería prepararse para trabajar en ella y crear productos de calidad. Internet es hoy en día una herramienta imprescindible de la que el euskara no puede prescindir.

Ze fameux réseau Internet est l'objet d'analyses du point de vue des internautes basques. Il faut signaler le fait que l'euskera n'a pas suffisamment utilisé ce réseau télématique, ce qui fait que la société basque doit se préparer à travailler sur ce réseau et créer des produits de qualité. Internet est aujourd'hui un outil indispensable dont le basque ne peut se passer.



1. Sarrera. 2. Internet: errealitate bat... baino gutxiago. 3. Euskara eta Internet. 4. Zer egin egoera hobetzeko?

1. Sarrera

Eusko Ikaskuntzak 1996ko ekainean, Internet sarean bere lehen dokumentu eta informazioa eskaintzeari ekin zionean, euskaldunok aspalditik inguratzen gaituen kezka bat nagusitu zen berriz ere gudan: ZER HIZKUNTZA ERABILI BEHAR GENUEN?

Denok ezagutzen dugu Eusko Ikaskuntzak betidanik hiru hizkuntzatan argitaratzen dituela bere liburu eta idazkiak —azken urteotan, logika biribilago bati helduz, hiru hizkuntza horiek tartekatu egiten ditugu, lan osoa itzulpen hutsa gerta ez dakigun—. Hori dela eta, eta paperezko euskarriari nagokio, badakigu jakin zer nolako harrera eta arrakasta duten hizkuntza bakoitzean publikatutakoek. Gure biltegiek garbi asko adierazten dute norainoko gastua dugun hizkuntza bakoitzeko ahaleginean.

Baina egia da gurearen gisako hizkuntza-komunitate batek erlatibotasunez begiratu behar diola gastuaren kontzeptuari, inork ez baitaki non hasten den errentabilitatea eta non amaitzen den abaguneko kostua edo *costo de oportunidad* delakoa.

Hizkuntza planteamenduei begira “defentsarako ekonomia” batean gaude murgilduta, eta horrek esfortzu osagarrietara ohitu gaitu, emaitza eta ondorioa beti bat dugularik: hitzun gutxiko hizkuntza batek askoz gehiago inbertitu behar du hizkuntzaren normalkuntzan, hizkuntza bizia izaten jarraituko badu. Egiaztapen horrek, noski, arrazoiak eskaintzen dizkio beste komunitateari —hau da, gure kasuan euskararekiko ezelako sentiberatasunik azaltzen ez duen biztanleriari— gure hizkuntzaren kontra egundokoak eta bost esateko, eta alferrikako gastua dela haizatuko dute ozen.

Hala ere, guk euskaldunok garbi dugu euskararen normalizazioa geuri dagokigula eta oztopo guztien gainetik, nola edo hala —eta lokin Zaitegi zenaren “gogo denean aldaparik ez” ospetsuari jarraiki— adorez jantzi behar dugu geure burua, bidean gera ez gaitezen.

Gaurko nire ekarpen honek, ordea, bide desberdinetatik narama eta heldu behar diot euskara eta Internet gaiari, izan ere —eta batzuek oraindik asimilatu ez duten arren— Internet gero eta komunikabide garrantzitsuago bilakatzen ari da gure gizartean. Aurreko baieztapen honek detailtxo bat gogorarazten dit; hain zuzen ere, Euskonews aldizkari elektronikoa orain dela gutxi jazo zena: euskal kazetari ospetsu bati hausnarketa eskatu zitzaion, euskarak

komunikabideetan duen presentziari buruz, eta bere erantzunean ez zuen ezta aipatu ere egin Internet hitza. Hori bi arrazoiengatik izan zitekeen:

- Ahaztu egin zitzaion Internet HORTXE dagoena.
- Oraingo errealitateaz jabetuta, ez zuen lerro bat ere alferrik galdu nahi izan bere ikerketan.

Nik, badaezbada ere, bi aukerak aztertu nahi nituzke, gain giroki bederen, bata eta bestea interesgarriak direla iruditzen baitzait.

2. Internet: errealitate bat... baino gutxiago

Zer esan nahi dudan titulu honekin? Bada, sare ospetsuaz mundu guztiak entzun duela zertxobait baina benetako mamia zein duen galdeginez gero... oso bestelako ideia eramango genuke, Euskal Herriko internauten kopurua oso murrizta baita.

Eusko Ikaskuntzaren XIV Kongresuak, *Informazioaren Gizartea* gaia izan zuen ardatz nagusia 1997an, eta Luis Gurrutxaga ekitaldiko lehendakariak bere hitzaldian eskainitako datuen arabera (EUROSTAT), espainiar gazteen artean —15 eta 24 urte bitartekoak— %3'2a zen Internet erabiltzen zutenak, Suediakoak %32a zen bitartean. Ordudanik erabileen portzentajeak gorantz egin duen arren, oso urruti gabiltza, estatubatuar edota ipar europar gizarteek markaturikoetatik. Ikus ditzagun erreferentzia batzuk:

1999ko otsaila-martxoko estatistikek diotenez (Estudio General de Medios delakoaren arabera), 14 urtetatik aurrera, %5'8ak erabiltzen du Internet, nahiz eta %8ak sarerako sarrera eduki. Orain dela hiru urte, portzentajeak %1'6 eta %2'5a ziren. Zerbait aurreratu da.

EAEri dagokionez, datuak kezkarriagoak dira: %4'9a eta %8'9a, hurrenez hurren. Are txarragoak Nafarroaren kasuan: %3'5a eta %7'1a.

Zenbakiak markatzen dutenez, Madrid eta Kataluniako biztanleria zaletuagoa da Interneterako euskalduna baino, ia-ia 4 puntutan (%100, gutxi gora behera)

Internetera sartzeko erabiltzen den tokiari begira, berriz, badirudi estatistikak laneko ordenadorea sailkatzen duela lehenen (%49) —eta sailkapen honetako lehen erreferentzia Unibertsitatea da— eta jarraian etxekoa (%43). Begi bistan dago hori, oportetean sartu baita Unibertsitatea eta jaitsi da nabarmen erabileen kopurua.

“ Sare ospetsuaz mundu guztiak entzun du zertxobait, baina Euskal Herriko internauten kopurua oso murrizta da ”

Aurreko zifra horiek garbi adierazten dutenez, ez gara uhin berrira ohitu eta aukerak galtzen ari garela iruditzen zait. Sarritan, gainera, zeharoko mezu txarra zabaldu da Internet-i buruz. Bestalde, eta egiaztapen objektiboa dela azpimarratu nahi nuke, giro akademikoan halako izu inguratzaile bat atzeman dut hainbat irakasleren artean, komunikabide berri honek haien lan sistema kolokan ipiniko bailuen, lanpostua arriskuan jartzeraino iritsiko balitz bezala. Hau da, gezurra dirudien arren, ustezko intelektualitatearen abangoardiako kideen artean mesfidantzazko giroa errealitatea da. Berdin gertatzen al da gainerako ofizioetan? Seguruenik, bai.

Beste egiaztapen garrantz baten eredu: Euskonews-ek 1700 harpidedun ditu gaur egun, astero euren posta elektronikoko astekariaren edukia jasotzen dutenak. Geure kalkuluen arabera —eta igorketari ekin aurretik hartzailearen baimena eta, suposatzen da, interesa ere ziurtatzen dugun arren— 400 bat dira, astekaria inoiz irekitzen ez dutenak. Horietako gehienak EAE eta NFK-koak dira. Zergatik uzten dute ireki gabe, astekaria jasotzeko borondatea azaldu bazuten? Batere zalantzarik gabe, horietako batzuek Internet erabiltzen jakin ere jakingo ez dutelako

Labur bilduz, euskaldunen artean oso gutxi dago hedatua Internet-en erabilera eta, beraz, ezin gara gehiegi harritu komunikabideetako profesional bati sare telematikoa denik ere ahazten zaionean.

3. Euskara eta Internet

Baliteke ere, eta goian sailkatutako bigarren puntura noa, aipatutako profesional horrek ahaztu ez, baizik eta gertatu zaiona zera da, ez duela lerro bat ere alferrik galdu nahi izan binomioa aztertzen, beraren ustez gaiak askorako ematen ez zuelako.

Horrela balitz, hobeto uler geniezaioke jokaera.

Logikak dioskunez, murrizta baldin bada gure arteko internauten kopurua, horien kolektiboan aurki genitzakeen euskaldunon proportzioa, gutxi gorabehera biztanleria orokorreko maila bertsuan izango dugu. Hau da, %30a inguru eduki genetzake, ez baitut uste euskaldunok, euskaldun izateagatik soilik, Internet hurbilago dugunik, gainerakoek baino. Logika horri eutsiz, 14 urtetatik aurrera den populazio osoa kontuan izanik, Internet-eko erabile euskaldunok %1a inguru izango ginateke. Kezkagarria, guztiz, nahiz eta badakidan estatistiken dantzan malgutasun apur bat eman daitekeena, eta gazteenek adinduok baino gehiago erabiltzen dutela. Baina, hala eta guztiz ere, portzentajea oso txikia da.

Beraz, euskaldunok eguneroko bizimoduan topatzen ditugun arazo berdintsuak agertzen zaizkigu sare telematikokoan, geure hizkuntzaren mugetara behartuta. Antzerako ezari eta gabezia.

Nola egin aurre, sare telematikokoan euskararen presentziak beharko lukeen zabaltasun duinari, gastuetan ito gabe eta praktikotasuna helburu izanik? Horratx, jaun-andreok, galdera zail eta ertzez bete! Baina zailtasunetan hazi beharra dugunez gero, erantzuna aurkitu behar diogu auziari.

Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek (IKT) eragina nabaria izan dute gure bizimoduan eta horren egiaztapena gero eta handiagoa dugu. Edozein gizartetan aldaera sakonak jasateko prestatzen ari dira eta, beraz, hezkuntza eta kultura sistemak berregokitzeko gertu daude. Sarean maioritarioak ez diren hizkuntzek euren presentzia ziurtatu behar dute. Baina, adi!, horien artean ez dira, gurearen gisako hizkuntza txiki eta hitzun gutxikoak bakarrik sartzten. Espainiera eta frantsesa ere sailkapen horretako kide ditugu, nahiz eta —gurearekin alderatuta— askoz egoera indartsuagoan ageri diren.

Find/SVP amerikar elkartearen txosten batek duela urtebete bat inguru zioenez, Iparramerikako umei ahalbide errazak egokitu zaizkie Internet erabiltzen treba daitezen. Horretarako, noski, umeentzako moduko produktuak biderkatu egin dira sarean. Disney, Time Warner, Viacom, America Online, MSN, Yahoo eta beste batzuek, web edota kanala aproposak sortu dituzte haurrentzat. *Business is business* gordinetik, indartsu abiatu dira enpresa horiek, berez dolar ugari sortzen dituen biztanleriako ume-esparruari heltzeko. Multimediako multinazionalak garbi dute zein den bidea.

Nicholas Negro-ponte-ren esanetan, bestalde, garatze prozesuan ari diren nazioak ohartu egin dira euren haurrengan dutela epe



“ Euskal erakundeek ausardia osoz lagundu beharko lukete Internet-en haurrentzako edukiak jartzen ”

luzerako egin dezaketen inbertsiorik onena, eta horien oinarritzko heziketaren sistema puntako teknologietara egokituz gero bide onetik ari direla zioen Media Lab-eko zuzendariak.

Beraz, arrazoi batengatik zein bestearengatik, garbi dago gaur eguneko umeak ohitu behar direla sare telematiko eta multimediako produktuak erabiltzera. Gureak ere bai, noski. Baina ez edozelan, hizkuntzak zer esan handia baitu korapilo honetan.

Gizartearen mailarik gazteenetik ez baditugu euskarazko produktu egokiak ahalbidetzen, jaun-andreok, belaunaldi oso bat alferrik galtzen ari gara. Hori irakurgai arruntekin gertatu zitzaigun: eskolako umeek liburu aproposik izan ez duten bitartean, analfabeto hutsak izan gara geure hizkuntzan. Bada, arlo telematikorako estrapolatuz, sarean euskarazko edukirik ez duten bitartean, gure haurrek beste edozein hizkuntzatarara joko dute euren ikas eta jolasnahia asetzeko. Hau da, euskararen normalizazio jarraituak atzerapen kezkarria jasango du, belaunaldi osokoa, hain zuzen, ohiturak lege egiten baitu, eta haurtzaroan haziriko usadioak nekez erauzten dira inoren nortasunetik.

Euskal haurren esparrua zeharoko basamortu itzela dugu sare telematikoan. Eta hortik hasita, gure hizkuntzari buruzko errenkura kronikoa elikatzen ari garela esango nuke, oso gizarte espeziala izanik, geure hizkuntzaren garapeneko lasterketan diru gehiago xahutzen baitugu suziritan zentzuzko estrategia burutzeko ahaleginetan baino. Ez digu lantu merkeak balio izango.

Liburugintzan egin den bezala, euskal erakundeek ausardia osoz lagundu beharko lukete Internet-en haurrentzako edukiak jartzen. Ez dago beste biderik. Linea zabal bat ireki beharko litzateke, ekoizpen serioari ekiteko. Ekoizpen propioa, batez ere, itzulpen eta egokitzapenak ahaztu gabe, jakina. Askoz

errentagarritasun handiagoa atera lekioko linea horri liburugintzakoari baino: errentagarritasun ekonomikoa baina, zalantzarik gabe, baita kulturala ere.

Internet-eko munduak elkarreraginezko planteamendu aktiboa eskatzen du, irakurketa hutsak duen baino handiagoa. Eta erabilearengan eragin sakonagoa du hark, internauta irakurketarako ez ezik baita berehalako erantzunerako ere gertutzen baitu. Erantzun idatzia! Horrek hizkuntzarako suposatzen duen abantailarekin.

Google bilatzaileak, orain dela gutxi (ekainaren 24a) eskainitako datuak dira ondokoak:

Euskara hitza daramaten 389 helbide agertzen dira
Euskerarekin, 1390
Basque languagerekin, 8954
Langue Basquerekin, 1622
Vascuencerekin, 66

Datu horiek, Internet-en eta ingelesaren aurrean, espainiera eta frantseseraren morrontza adierazten dute.

Helbide horietan denetariko informazioa aurki daiteke gure hizkuntzarekin lotua. Eta, ikuspegi ireki batetik aztertuta, gure hizkuntzari buruzko helbide euskaldunak osoko %3a dela esan genezake. Horietan, noski, informazio apur bat euskaraz eman dezaketen helbide partikular edo behin-behinekoak ere sartzten dira. Adibidez, berea euskaraz eman nahi izan duen internauta eraginkor apalaren iritzia edota alderdi politiko baten hauteskundeetako euskarazko publizitatea.

Diodan halaber, bilatzaile horretan katalanerari buruz emandako datuen arabera, llengua catalana-ri dagozkion erreferentziak, %10a direla, oro har.

Internet-eko bideetatik kudeaketa pittin bat egin nahi dugunontzat estatistikaren laguntza arras estimagarria da, horri esker informazio pilo bat lor baitezakegu, gure orrietara sartzten diren lagunen gain. Eta, besteak beste, badakigu jakin, noski, zer nolako sarrera-kopurua den, eta bakoitzak zer bilatzen duen. Horrexegatik ezagutzen dugu euskarazko orrien erakarpenean zein eragina duen nabigatzaileengan, eta oso erraza da errentagarritasun ekonomikoa kalkulatzeko.

Euskarazko webguneak gero eta itxurosoagoak ditugu sarean. Egia da *handicap* gogor baten kontra dugula aritu behar egunero, baina badirudi urrats garrantzitsuak ematen ari garela. Badira eredu garbi batzuk, eta justizia egin

behar zaiela iruditzen zait, aipamen hutsa egiten, beste era batez ez bada ere. *Argia* astekaria da, ene ustez, kasurik adierazgarrienetakoa, eta bihoazkie nire zorionak, oso txoko interesgarria sortu baitute, multimedia proiektu serio baten produktu bezala.

Euskaldunon Egunkaria ere hortxe dago (Jalgi-ren barruan), bere garapenean apalagoa izan bada ere. Diseinua eta baita edukiari dagokionez, bertsio elektronikoak ez baititu paperezkoan ageri diren albiste guztiak azaltzen.

Begiradatxo bat botatzen badiegu euskaraz azaltzen zaizkigun webguneei, oro har, geure hizkuntzari lepora geniezaiokeen gabezia bera atzeman daitekeela esan behar da. Horietako asko eta asko aztertuta, badirudi ez gaudela oso konbentzituta bideari eutsi behar zaiola, aurrera egingo bada. Eta, sarean ere, gure herri honen keinukeriaz topo egiten dugula sala liteke; *tik* gehiegi agerian geratzen dira. Webguneetako edukia zaindu behar dela ez dela ulertu ematen du.

Webgunerik gehienak informazio soila emateko erabiltzen dira. Eusko Ikaskuntzaren adibidea erabiliz argituko dut adierazi nahi dudana: gure webgunea egunero berriztatzen dugu, hau da, informazioa berri-berria da. Baina gure orrietan, informazioa ez ezik baita dokumentazioa ere eskaintzen dugu, eta hori azpimarratu nahi nuen, hau da, ditugun bisitarien kopururik altuena (%80a) dokumentazioaren bila datorrela, eta informazioa —interesatzen bazaio ere— nahikoa du sarrera bakarreko eskabidearekin. Guretan —Euskal Herriko webgunerik bisitatuenetakoak izango direlakoan gaude— liburutegi birtuala, publikapen elektronikoak (eduki mamitsua eskaintzen dutenak), masterrak, dendashop, Euskonews astekari elektronikoa, datu baseak eta abar eskaintzen ditugu, eta horietara jotzen du bisitariak, informazio hutsa (Eusko Ikaskuntza zer den, zenbat sailetan dagoen banatua eta abar) gutxieneko batentzat geratzen delarik.

Bada, nioen bezala, euskaraz aurki daitezkeen webguneek, ordea, informazioa eskaintzen dute jeneralean (ez ditut sailkapen honetan Argia eta Euskaldunon Egunkaria sartzen, noski) eta gainera —zoritxarrez— ez daude beti eguneratuta. Edota orrialderen batera sartu nahi izanez gero, huts dezente ematen dute, irudi kaxkarra sortaraziz. Detailtxo horiek ez dute ezer onik esaten webguneko titularraren gain. Utzikeria nahiko errotua dago euskarazko informazioari dagokionez.

Bestalde, badira webguneak euskara erdararen morroi bezala hartzen dutenak, erdararen —espainiera, gehienbat— itzulpen hutsa baita eskaintzen dutena. Horien zabarkeria ageriagoa dugu, zenbaitzuetan muga

adigaitzetaraino iristen delarik. Euskaldunontzat irain lingustiko ugari atzeman daitezke sarean.

4. Zer egin egoera hobetzeko?

Bitxia da nola erakunde publikoetako agintariei ahoa betetzen zaien Internet gaiaz mintzatzen direnean. Borondate onik ukatu ezin dakiekeenez, laster euren ezgaitasun kezkarritik altxatzeko gauza izango direla pentsatu nahi nuke, etorkizun argiago bat eskaintzen zaigun batera.

Eusko Ikaskuntzaren XIV Kongresura itzultzen naiz osterera ere, inaugurazio ekitaldian Luis Gurrutxagaren hitzak gogorarazteko: arazoa ez da konponduko, eskoletan Internet-erako sarbidea ahalbidetze soilarekin. Ez; arazoa askoz konplexuagoa da eta ekimen aktibora pasatu beharra dago, behar bezalako edukiak sortarazteko. Ezinbesteko oinarria dugu edukiarena, gurearen gisako kulturentzat. Ez bagara sarera irteten, nor garen eta, batez ere!, ZER ESKAIN dezakegun argi azalduz, inor ez da gutaz arduratuko.

Beraz, lehen nioen bezala, ez da informazioa dokumentazioa bezain garrantzitsua, eta informazioari ez diot duen garrantzia kendu nahi. Baina alferrik ari gara, funtsezko edukirik ekoiztu gabe sarera atereaz gero. Ez dugu inon interesik piztaraziko.

Euskarazko edukiak geure berezko merkaturako preparatu behar ditugu eta, txikiagoa den arren, bertan atera behar zaio errentagarritasuna. Liburugintzan gertatu zen bezala, erakunde publikoek lehentasuna eman beharko liokete euskarazko produktu onak ekoizteari, geure haur, gazte eta —noski— adinduok ere euskararen zirkulu osoaz balia gaitezen, beste edozein hizkuntzatan legez.

Kontuan izan beharreko arloa, itzulpengintzarena da. Baina ez gurean orain arte nagusi izan den norabidean bakarrik —hots, espainieratik euskarara— baizik eta alderantzizkoan ere, eta —ene ustez— askoz arrazoi handiagoarengatik. Begira: euskaldunok eduki mamitsuak ekoiztu behar ditugu, zientzia, kultura, ekonomia, osasungintza eta bizitzaren arlo guztietan garapen integrala izango bada. Geuri dagokigu, euskaldunoi, erakustea gauza garela goi mailako edukiak sortzeko. Eta horretarako, noski, laguntza behar dugu, inori ez baitzaio arrotz egiten ikerketa euskaraz burutzeak oso merkatu txikiarekin duela topo egiten, mugatua aurkitzen dela esparru murriztuz batera.

Eusko Ikaskuntzaren Euskonews-en kasuan, adibidez, lehentasuna eman nahi izan

diogu euskaraz eginiko ekoizpenari eta, horregatik, iristen zaizkigun euskarazko lanak itzuli egiten ditugu beste hizkuntza batera (espainiera, frantsesera edo ingelesa, orain arte). Itzulpenaren kostoa bere gain hartzen du Eusko Ikaskuntzak.

Euskal administrazioak kontuan izan beharko luke bide hau, liburugintzan itzulpengintza garrantzizkoa bada, Internet-ek askoz gehiago exijitzen du. Sareko berehalakotasunaren premiak mekanismo egokiak ahalbidetuz beharko lizkieke erakunde publikoei, beti ere, kalitateko edukia bermatzen bazaie.

Sareko eskaintzak biderkatzen ari dira egunegun. Eta laster batean, orain irudiezinak ditugun produktuak eskainiko zaizkigu Internet-en, besteak beste hizkuntza guztien arteko itzulpen zerbitzuak ahalbidetuko dituztenak. Teknologiaren garapenak hizkuntzetako orain arteko langa gaindiezina lurreratuko du. Horregatik, denborari denbora irabaziz, espazioa lortzen joan behar dugu sarean, baina ez edozelango materialarekin. Itzulpen-zerbitzuei begira, gogoratu behar da Babylon sistemaren arrakasta, ingelesetik hainbat hizkuntzatarako itzulpen automatikoa egiten duena —DOAN. Nahiz eta oraindik hitzez hitz eskaintzen digun, laster esaera osora iritsiko da, zalantzarik gabe. Eta euskarara, jakina, guk nahi izanez gero, hots, geure hizkuntzari garrantzia emanez gero.

Fidagarritasunean oinarrituta, bihar etziko merkatu globalak —esan al dut lehenago Internet merkatarien zoko erraldoia dela?— goi kalitateko produktuak estimatuko ditu. Eta guk ere hortxe egon beharko dugu, gureak salduko baditugu. Txapuzero eta zabarrek ez dute zer eginik izango sarean.

Euskarak erronka gogorra du Internet-en, baina ez gogorragoa gainerako arloetan baino. Antzerakoa esango nuke. Baina, gorago adierazi nahi izan dudana bezala, Internet-eko elkarreraginezko nolakotasunak gure hizkuntzari abantailak ekar diezazkiokeela iruditzen zait, jarrera aktiboa eskatzen baitu. Beraz, epe luzerako proiektzioa eginez gero, euskarak oraintxe beharko lukeen inbertsioaren etekina guztiz errentagarria daitekeela pentsatu nahi dut, beste edozein komunikabidetan orain arte atera ez duenaren moduko etekin positiboa, alegia.

Errentagarria al da euskara? galde lezake batean batek, parametro ekonomikoei begira. Horixe bera itauntzen diogu geure buruari aspaldidanik, eta baietz-ezetz estu batean mugitzen garela aitortu behar da. Nik behintzat garbi daukat euskararengatik ez garela gehiago arduratu beharko behin errentagarritasun ekonomikoa aurkitzen diogunez gero. Hain urruti al gaude?



Eusko Ikaskuntza-ko web orria.

Ez gara beste inor baino hobeak. Baina ezta txarragoak ere. Inork uste al du, Internet-eko errentagarritasuna bermatua dagoela beste hizkuntzetan? Internet sarean, oraindik ere, ezezagun handia dugu eta inork gutxik daki nola erreakzionatuko diren internautak hemendik gutxira. Denok ezagutu dugu, adibidez, webgune batera iristeko titularrak jartzen zuen ordainsaria. Egunkariak, Estatu Batuetan esaterako, formula horren pean aritu dira azken urteotan. Baina balizko bezeroek ihes egin zuten, internauta ez baitago prest informazio hutsarengatik ordaintzeko. Eta aldatu behar izan dute internautak bereganatzeko sistema, eta ahalik eta bisitari gehien lortzen ahalegintzen dira, gero publizitateko espazioak eskaini ahal izateko.

Euskarak ere bide bertsua du bere aurrean. Zer eskaini? galderaren erantzunean datza formula magikoaren giltza. Baina, ezelako zalantzarik gabe, edukiaren seriotasun eta kalitatean oinarritu behar da eskaintza. Ez bakarrik euskaldunok zuzen-zuzenean horrezaz goza dezagun, baizik eta euskaldun ez direnak ere —balizko merkatuaren hedapena itzulpengintzaren bitartez eraginda— euskal errealitatearen espektro zabalaz jabe egin daitezten.

Bide horretatik askoz hurrenago izango dugu euskararen errentagarritasun-atartea. Ez da, ez, utopia merkea.